

*Piratak*  
*itsaslapurren istorioak*

Seve Calleja

*Itzulpen-koordinazioa: Lurdes Auzmendi*  
*Jose A. Tellaetxeren marrazkiak*

Desclée De Brouwer

# AURKIBIDEA

HITZAURREA. . . . .	9
1. ISMAROKO ARPILAKETA . . . . .	23
Ulises eta piratak	
<i>Koldo Biguriren itzulpena</i> . . . . .	25
2. PIRATA BIKINGO BAT. . . . .	31
Skiold, itsasotik etorritako erregea	
<i>Lurdes Auzmendiren itzulpena</i> . . . . .	33
3. PIRATA BATEN SORRERA . . . . .	43
Singleton kapitainaren abenturak	
<i>Lurdes Auzmendiren itzulpena</i> . . . . .	45
4. SANDOKAN PIRATA MALAYSIARRA . . . . .	53
Mompracengo Tigreak	
<i>Lurdes Auzmendiren itzulpena</i> . . . . .	45
5. OZEANO BAREKO UHARTE GALDU BATEAN . . . . .	67
Charles uhartea eta txakurren erregea	
<i>Lurdes Auzmendiren itzulpena</i> . . . . .	45
6. BEN GUNN, ITSASOAN GALDUA . . . . .	77
Altxor uhartea	
<i>Maria Garikanoren itzulpena,</i>	
<b><i>Elkar</i></b> argialetxean argitaratuta . . . . .	79



7. LEHORREKO ITSASLAPURRAK . . . . .	91
Jamaica ostatua	
<i>Lurdes Auzmendiren itzulpena</i> . . . . .	93
8. IRAGANEKO MAMUAK . . . . .	105
Pirata mamuak	
<i>Naroa Zubillagaren itzulpena</i> . . . . .	107
9. BUKANEROEN GAINBEHERA . . . . .	115
Jamaikako urakana	
<i>Naroa Zubillagaren itzulpena</i> . . . . .	117
10. PIRATEN AZKEN GORDELEKUAK . . . . .	129
Esklavo zoriontsuen uhartea	
<i>Mari Eli Ituarteren itzulpena</i> . . . . .	131
ERANSKINA. PIRATA MODERNOAK . . . . .	141
<i>Lurdes Auzmendiren itzulpena</i>	



# HITZAUURREA

## Itzulerarik gabeko bidaiariak

Ontzi baten leman itsaso haserrearekin borrokan ibili behar duten heroien istorioak oso ugariak dira, eta literatura epopeia asko eta askoren ardatz nagusia ere bai: Allan Poeren *Arthur Gordon Pym*, Conraden *Lord Jim*, Kiplingen *Hervey Cheyne*, Julio Vernerren *Dick Sand* gaztetxo edo Jack Aubrey harroputza, Patrick O'Brianen itsas eleberri sorta zabalaren protagonista alegia, itsasgizon beldurgabeen erakusgarri onak dira. Abenturazko eleberri mota honen arrakastak kontakizun ugari sorrarazi zituen joan den mendean zehar, eta haien oihartzuna gure egunetara arte ailegatu da, neurri handi batean zinearen bidez izan duten zabalkuntzari esker. Kontakizun horietako asko, beraien ohiko kontagaiak alde batera utzi eta beraien lanetakoren bat itsasoari eskaini zioten idazleenak dira. Gogora ditzagun, adibidez, Fenimore Cooper idazlea, bere ohiko Ameriketako tranpa-jartzaile eta *pioneer*-ei buruzko kontakizunak une batez alde batera utzi eta *Itsaslapur Gorria* (1827) idatzi zuena; edo Julio Verne, bere pertsonaiarik entzutetsuenak, adibidez *Hamabost urteko kapitainako* protagonista kasu, itsasoan kokatu zituen; edo Rudyard Kipling, *Kapitain izukaitzak* kontakizunarekin ohiko literatura bidetik urrundu zena; edo Walter Scott, eleberri historikoa bereziki landu zuena, eta *Pirata* izenburuko liburu bat idatzi zuena, antza denez Stevensonaren aitonaren eskutik



# Piratak

10

Eskoziatik barrena egin zuen bidaian inspiratua... Beste idazle batzuek, aldiz, beraien irudimenaren eszenatoki garrantzitsu bezala itsasoa aukeratu dute, eta pertsonaia nagusi bezala, piratak. Eta idazle horiengana hurbilduko gara, generoaren maisutzat har ditzakegulako. Dagoeneko aipatu ditugu horietako batzuk: Daniel Defoe, Emilio Salgari edo Rafael Sabatini. Nolanahi, batzuek eta besteek, denek aberastu dute ibilera amaigabeen literatura mota hau, kontakizunen erritmoarekin irakurle guztien arreta harrapatu egiten duena, baina ahaztu gabe abentura eta pertsonaia beldurgabe edo zital horien atzean beti egoten dela halako oinarri historiko bat. Cervantesentzat nahikoa zen Argelen preso egon zenean jasan zituen sufrimenduak kontatzea; Stevensonentzat, umetatik Bristol jaioterrian ezagutu zituen kontakizunak eta giroa; eta beharbada guztien artean irudimenik handienekoa zen Emilio Salgari italiarrarentzat, bere nautikako ezagutzak eta itsasotik eta historiatik barrena egin zituen bidaia ugariak. Horrek esan nahi du, fantasia, sinesgarria izateko, historiatik elikatu dela, eta piraten eleberrien kasuan, aurretik badagoela bidaia, kronika, biografia eta, noski, elezaharren literatura aberats bat, idazle horietako askorentzat haztegi bikaina izan dena. Haztegi hori, tradizio hori eta piratena bezalako bizimodu hain arbuiagarri eta marjinal baina aldi berean hain erakargarri horixe daude itsasoko gaizkile hauen, kortsario, bidelapur eta filibusteroen istorio hauen atzean, itsasgizon, marinel, eskifaia, uharte eta itsasertzeko hiri, lapurreta, hilketa eta egiazko gerra hauen guztien atzean.

## Nor ziren piratak?

Beti egon dira hiltzaile sena duten gaizkileak, itsaso eta portuetako lapurrak, besteenaz jabetzen ziren eta lapurretan eta harrapakarian diharduten pertsonak. Ez da hain erraza,



# Piratak

ordea, *kortsarioak* ere halakoak ote ziren esatea: alegia, beraien gobernuaren baimenarekin beste nazio batzuetako ontziak erasotzeko, etsaien merkataritza kaltetzeko eta irabazi azkarrak lortzeko asmoz pertsona pribatu zenbaitek antolatu zituzten itsasontzietako marinelak. Gainera, *pirata* edo *itsaslapur* deitura lausoaren azpian sartzen dira bai *bukaneroak* bai eta *filibusteroak* ere; lehendabizikoek batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan Espainiaren mende zeuden Karibe aldeko kostaldeko portu eta hiriak erasotzen zituzten; hango irletan bizi ziren, eta ehizan ere ibiltzen ziren, haragia keztu eta hara inguratzen ziren itsasontziei saltzeko: etimologiari begiratzen badiogu, frantsesezko *boucaner* aditza dago hitz horren jatorrian, haragia keztatuz ontzea esan nahi duena, hain zuzen. Filibusteroak, aldiz, XVII. mendean Antilla aldean Itsasertzeko Anaien kofradia handia sortu zuten gaizkile beldurgarri batzuk ziren, edozein itsasontzi erasotzen zutenak. Piratatzat jo al daitezke, ordea, nabigatzaile greziarrak, beharrak bultzatuta Kristo aurreko mendeetan Egeoko itsasertzean galera erromatarrak erasotzen zituztenak? Edo Erdi Aroko berberek, Mediterraneotik barrena ibiltzen ziren itsasontzi kristauen aurkako gerran zihardutenak? Edo bikingoak, Ingalaterra, Irlanda, Frantzia eta orobat Galizia, Andaluzia eta Euskal Herriko kostaldeak erasotzen zituztelako beraien jabetzak hedatzeko eta lurra konkistatzeko irrikak bultzaturik? Edo Borneoko itsasertzetan britainiarrek zeuzkaten interesen kontra altxatu ziren malaysiarrak? Edo bigarren mundu gerran, merkataritza ontzi itxura hartuta, aliatuen flota ustekabeen erasotzen eta suntsitzen zuten itsasontzi alemanak?

11

Zalantzarik gabeko gauza bat bada: gizakiak itsasoak zeharkatzen dituenetik existitzen direla itsasoan jardun diren bidelapur eta gaizkileak; eta jende hura nor zen, nolakoak ziren kontatu nahi denean, ia ezinezkoa da historia eta literatura banatzea, hau





Golfo de México

Florida

Veracruz

Yucatán

Bahia de Honduras

Cuba

Grandes

Jamaica

Honduras

Ma

Golfo de Bocas del Toro

Portobello





Islas Bahamas

Océano Atlántico

Tortuga

Puerto Rico

Islas Virgenes

Anguilla

Antigua

St. Kitts

Guadalupe

Dominica

Martinica

Barbados

Pequeñas Antillas

Curacao

Bonaire

Blanquilla

Tobago

Trinidad

Maracaibo

Cartagena

Gibraltar

Lago de Maracaibo

Antillas Hispaniola

Mar Caribe



# Piratak

da, datu historiko eta ongi dokumentatuak elezahar, sineskeria eta idazle askoren fantasiatik bereiztea. Izan ere, piratek ez zuten beraien balentria edo azioen lekukotasunik utzi nahi izan –eta gutxitan onartzen zuten deitura hori, mespretxuzkoa iruditzen zitzaielako–, eta haien artetik urkabeari ihes egitea lortzen zuenak –hori baitzen ia beti ezartzen zitzaien zigorra–, nahiago izaten zuen zuhurtziaz bere harrapakin zatiarekin erretiratzea.

14 Onartzen badugu pirata hiltzailea dela, eta historiak horrela aurkezten digu, orobat onartu behar dugu itsas-gizon aditua dela, disziplinatua, berak bete eta besteei betearazten zien barne araudi zorrotzera makurtua, bere produktuentzat merkatuak sortzeko gauza zena eta itsas zabalean borroka egiten trebea. Azken batean, pirata izaki berezi eta liluragarria da: disziplinagabea, krudela, kaltegarria eta mespretxagarria kronika eta agiri historikoen arabera, baina sarritan baita emakume, aberri edo erlijioaganako onginahiez betea ere; izaki konplexua, etsaiekin errukigabe eta bere ingurukoekin samur eta fin agertzeko gai zena. Dokumentu historikoez eta horietan oinarritutako literaturak ez dituzte abentura, borrokaldi eta harrapakinarekin lotuta erakusten; askotxotan pertsona jostazale bezala aurkezten dizkigute eta beste askotan malenkoniatsu eta goibel bezala, alegia, ia beti gizon txundigarriak bezala. Litekeena da askori leporatu zaien krudeltasun ospe hori kontrarioa beldurtzeko modu bat besterik ez izatea. Borroka egiterako orduan, ospe txar hori eta ezusteko erasoak ziren haren armarik onenak. Baina erasotzea ala ez, erabaki hori ere bozketa bidez hartzen zuten. Izan ere, pirata horietako askok zeukaten gizarte eredua lurreko agintari askok zeukatena baino zuzenagoa zen. Beraz, azio, arrakasta eta ausarkeriaz betetako bizimodu horrekin ez zen harrizkeoa lehorrean eta, batez ere, merkataritza itsasontzietako marinelen artean, elezahar asko eta asko ibiltzea ahoz aho.



# Piratak

## Kortsarioak, bukaneroak eta filibusteroak

Piratak, beraz, kortsarioak nahiz bukaneroak nahiz filibusteroak, *itsasoko lapurrak* izan dira. Eta historiatic literaturara pasatzen denean, gertakari historikoak eleberri eta fikzio bihurtzen direnean, orduan ikus dezakegu, askotxo aldatuta –despota edo santu bihurtuta–, eleberrigileek heroi gisa aurkezten dizkiguten gizaki horien irudia (horren adibide izan litezke erdi aroko gurutzatuak, Berpizkunde garaiko konkistatzaileak, Ameriketako Mendebaldeko lehen kolonoak, Andaluziako mendietako basolapur famatuak eta abar...). Piraten kasuan, Erroman-tizismoko poetek, talde baztertuak idealizatzeko haien joerak bultzaturik, azalduko dute hobekien itsasoko lapurren irudi epikoa, aldi berean beldurgarri eta heroikoa, eta sarritan aurkeztuko zaizkigu aberri, lege eta mugarik gabeko askatasunaren aldeko borrokalari bezala (aski da Esproncedak edo Lord Byronek goratu zituzten eta gero zinean Errol Flynn, Burt Lancaster edo Johnny Deppak hezurmamitu dituzten ezpatari beldurgabe horien pirata estereotipoari erreparatzea). Agian, horregatik epopeia zinematografiko ugari horietan –ia beti generoko idazlerik gorai-patuenen abentura liburuetan oinarrituak, Stevenson, Salgari eta beste hainbatenetan– antzematen ditugu orain errazago egiazko historian beharbada existitu ziren piratak eta haien bizitzak, idazleek, liburueta eramatean, aldatu zituztenak. Horregatik hezurmamitzen dute piratek ordudanik itsas zabalean aurkariaren aurrean abenturazale ausart, beldurgabe eta krudelaren eta aldi berean lehorrean maitale samur eta leiala denaren irudia, beretarren artean justiziagilea eta aldi berean harroa eta mendekatzailea agian egunen batean bidegabeki iheslari izatera behartu zutenen aurrean, Rafael Sabatinik sortutako Blood Kapitainaren edo Emilio Salgariren Sandokan malaysiar beldurgabearen erara.






С и б а

М а р

Jamaica

Port Royal



Pequeña Inagua

Gran. Inagua

Archipiélago  
Caicos

Islas Turks

Tortuga

Paso de los Vientos

Caribe

Hispaniola



# Piratak

20 Literaturari eta zineari esker guztiok pirataz eta bere ingurukoaz daukagun irudi hori –itsasontzia bizitoki gisa, ezpata edo pistolatzarra gerrikotik zintzilik, eguraldi guztietan zaildutako erdibiluztasuna, zapi korapilatu bat besterik ez daramala, borrokan zalua, bere itsasontzia karenatzeko, urez betetzeko edo babesteko erabiltzen dituen uharteak, mapa higitu eta enigmatikoak, horiek gordetzen dituzten altxorrak, eta abar– eta bere ezaugarri guztiak, guretzat, abenturaren seinale argi eta garbiak dira. Piraten historiak beti direlako abentura historiak, eta horietan, agian elementurik erakargarriena altxor baten bilaketa da, bere abordatze eta lapurreten fruitu ezkutua. Piraten historietako osagai nagusi eta klasikoa altxorra da, eta aipatzen ari garen genero honetako eleberririk ezagunenetako batek, Stevensonen *Altxor uharteak*, omenaldi literariorik ederrena eskaini zion. Esan dezakegu, beraz, bidaiak, altxorrak, horiek aurkitzeko behar diren mapa enigmatikoak, etsai ikaragarrien aurkako itsas borroka latzak eta babesleku gisa erabiltzen diren uharte urrunak izaten direla, piraten kasuan bezala, itsasoan gertatzen diren abentura guztien osagarriak. Izan ere, piraten sarraski eta ibileren eszenatoki diren itsasoak nabigatzaile trebe bihurtzen ditu itsaslapurrak, haien aurka hobeto hornituta borrokatzen diren haien etsaiak bezain trebeak. Horrela, bada, piratei buruzko edozein istoriotan aurkituko ditugu marinel bezala daukaten trebetasuna eta itsas zabalean edo portu eta itsasertzeko hirien kontra sistematikoki egiten dituzten erasoak. Aruch “Bizargorri” kortsario berberea XVI. mendeko Mediterraneoan itsasontzi kristau batzuen jabe egin baino lehen edo Henry Morgan filibustero ingelesak hurrengo mendean Panama eraso baino askoz lehenago (horrek heroi bihurtu zuen bere herrialdean), izen zerrenda luze batek elikatu du piraten historia –eta literatura–; begiratzeko erabiltzen dugun ikuspegiaren arabera, gaizkileak edo justiziagileak irudituko



# Piratak

zaizkigu; justiziagileak izango dira beraien gobernuen baimena zuten kortsarioak. *Bukanero* eta *filibustero* deiturak geroagokoak dira, eta hasieran hurrenez hurren kontrabandogileei eta altxor bilatzaileei deitzen zitzairen modu horretan. Guztiak itsasoan edo uharte ezkutu edo jende gutxik bisitatutako itsasarteetan mugitzen dira, eta uharte horietako batzuk, Dortoka, Madagaskar eta Jamaika, adibidez, piraten errepublika eta gordeleku ia hartuezin bihurtuko dira. Zokoratuak eta gaizkileak dira, beraz, sarritan miseria, esklabotasuna edo justiziatik ihes egiteko bide bakar bezala abentura erabiltzen dutenak. Mundu Berriaren konkistak eta haren ondorioz sortu zen mundu zahar eta berriaren arteko merkatalgaien joan-etorriak kolonietan eta potentzia kolonialetan eragin zuen aberastasunak bakarrik alza dezake itsas merkataritzarekin batera oso antzinako urteetan sortu zen jarduera horren goraldia; ez baitirudi oso desberdinak direnik kortsario holandar eta ingelesek merkataritza ontzi espainiarren kontra egiten zutena eta aspaldiko greziarrek ontzi feniziarren edo erromatarrek ontzi kartagotarren kontra egiten zutena. Arrazoi ekonomiko honetaz aparte, motibu erlijioso eta politikoak ere hartu behar dira kontuan, askotan itsaslapurretan onartu ez ezik, sustatu ere egin zutelako.


21

Seve Calleja





# 1 ISMAROKO ARPILAKETA



23

*Grezia klasikoaren garaietan ere bazeuden itsaslapurrak. Herodotok, historiaren aitak, Siria eta Egipto artean nabigatzen zuten itsasontziei erasotzen zien pirata baten balentriak kontatuz hasten du bere Historien lehen liburua, greziarren eta persiarren arteko gerrak kontatzen dituen. Garai haietan, merkataritza bide gehienak itsas bazterretik joaten ziren, eta garaiko ontziak sakonera txikikoak eta arinak izaten ziren; mendi, uharte edo lurmuturrak bezalako itsasertzeko erreferentziaz baliatzen ziren nabigatzeko, eta arratsean aingura botatzen zuten eguzkia atera arte. Gaueko orduak aukeratzen zituzten piratek itsasontziak eraso eta beraien gordelekura eramateko. Itsasertzeko herri txikiak ere erasotzen zituzten, eta horregatik herri horiek dorreak eta gotorlekuak eraikitzen zituzten, piratengandik babesteko. Piraten erasoaldi horietako bat Homerok kontatzen digu, Odissearen protagonistaren ahotik, IX. kantuan.*

